

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Planteatutako proiektua funtziona dezan, hainbat elementu garrantzitsuen presentzia egon behar da. Hori dela eta, beharrezkoak diren baliabideak sailkatu egin ditugu multzo ezberidnetan:

Lehenik eta behin, baliabide fisikoak daude. Zaborrontzi adimendua osatzeko baliabide hauek funtsezkoak dira, izan ere, idea errealitate bilakatzen dute. Hori dela eta, proiektua sortzeko burnia, kableak eta plastikoa (gutxi) premiazkoak dira. Era berean ordenagailua ere funtsezkoa bilakatzen da, zaborrontzia diseinatu eta kontrolatzen baitu. Gainera, zaborra era zehatz baten jasotzeko, akatsak ekidituz, kamara baten beharra funtsezkoa da. Honek zaborraren identifikazio eta selekzio zehatzagoa ahalbidetuko dio makinari, horrela lana erraztuz eta azkartuz.

Bigarrenik, baliabide intelektualak bereizten ditugu. Zaborra behar bezala bereizteko, funtsezkoa da bilketa prozesua aurrez programatzea. Hori dela eta, hainbat ingeniari elkartuko dira proiektuari bizia emateko, eta hainbat programa sortuko dituzte, zaborra ezin hobeto egokitu dadin zabor-eremu desberdinetara.

Jarraitzeko, giza baliabideak daude. Makina dagoenez kontrolpean, askok pentsatuko dute honek hotz eta ondo pentsatuta jokatu behar duela, sentimendurik gabe. Bueno ba, gure plana ez da robotari giza ezaugarriak ematea, hala nola sentimenduak, baina bai zaborra ez dena bereizteko giza gaitasuna ematea. Hau da, gaur egun, jende askok bidegabeko gauzak botatzen ditu zaborretara (animaliak, oso arriskutsuak edo kutsatzaileak diren gauzak), horregatik, giza kontzientziario gaitasun arrazoituarekin, robota gai izango da zabor bilketan eragin negatiboa duena bereizteko, baita harrapatuta geratu diren animalia posibleak erreskatatzeko ere. Nahiz eta makina bat izan eta berezko giza ezaugarriak faltan dituen, hau gai izango da prozesu hotz eta planifikazio baten arriskuak ekiditeko.

Azkenik, finantzia baliabideak ezberdindu ditugu. Proiektuan inbertituko den dirua da proiektua benetan martxan jarriko duena. Kasu honetan, teknologikoki aurreratutako proiektu baten aurrean gaudenez, honek funtziona dezan, bildutako dirua zabor arrunteko kamioi batena baino altuagoa da. Hori dela eta, ekoizpenaren kostua, eskatutako material eta programazio guztiak kontuan hartuta, proiektuan inbertitu beharreko dirua kopurua 250000 eurokoa da.

Baliabide guzti hauek konbinatuz era egokian, lortuko den azken produktua zaborrontzi adimendua da.